



Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2020ko ekainaren 23ko EBAZPENA, 2020/2021ko ikasturterako adinaren arrazoiengatik irakastorduak murrizteari buruzko deialdia ezartzen duena.

Funtzionario irakasleen mahai sektorialak 2018ko maiatzaren 14an akordio baterako egindako proposamenak 11. atalean adinaren arrazoiengatik irakastorduak murriztea agertzen du eta hau adierazten du: *"adin batetik aurrera borondatezko erretiroa hartzeko aukerarik ez duten langileei lan-karga arintzea du proposamen honek helburu nagusia, baita belaunaldi-aldaketari laguntzea ere"*.

Horren arabera, eta apirilaren 11ko 79/2017 dekretuak, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituenak, 10. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta,

EBAZTEN DUT:

LEHENA.- Helburua

Adinaren arrazoiengatik irakastorduak murriztea eskatzeko prozedura zehaztea du ebazpen honek helburu, beronek ezarritako terminoetan.

BIGARRENA.- Aplikazio-eremua.

Deialdi hau ondorengo pertsonalari aplikatuko zaio:

- a) Abuztuaren 31n 59 urte (60 urte bete gabe) dituzten Haur eta Lehen Hezkuntzako karrerako funtzionarioak.

Kolektibo horri aplikatu beharreko ordu-murrizketa astean bi irakastordukoa izango da.

- b) Abuztuaren 31n 60 urte beteta dituzten eta borondatezko erretiroa hartzeko baldintzak betetzen ez dituzten karrerako funtzionario irakasleak.

Kolektibo horri aplikatu beharreko ordu-murrizketak irakastorduen heren batekoa izango da.

HIRUGARRENA.- Baldintzak

Aurreko atalaren bigarren puntuan adierazitako pertsonalak ondorengo baldintzak bete beharko ditu:

- a) Deialdi espezifikoan zerbitzu-eginkizun bat eman ez izana 2020/2021ko ikasturterako.
- b) Beste jarduera batzuetan (proiektuak, EGA/AKA, jantokia, zuzendaritza-karguak ...) aritzeagatik, ezta osasun-arrazoiengatik ere, irakastorduen murrizketarik ez izatea 2020/2021ko ikasturterako.
- c) Murrizketa-orduak zuzendaritzaren eskura jarriko dira.

2020/2021 ikasturterako eskola-orduen murrizketa hori baimentzeko, ikasturte osoan bete beharko dira baldintzak. (2020ko irailaren 1etik 2021eko abuztuaren 31ra).

LAUGARRENA.- Ordu-murrizketa aplikatzeko irizpideak.

Ikastetxearen premia didaktikoen eta antolaketa-premien,-zuzendaritza-taldeak ezarriko ditu premia horiek,- araberako irizpideekin aplikatu beharko da ordu-murrizketa.

BOSGARRENA.- Eskaerak.

Eskaera formalizatzea.

- a) Hezkuntza Sailaren web orrian argitara emandako eredu ofizialean egin beharko dute murrizketa nahi duten pertsonak eskaera.
- b) Eskaera Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariari bidaliko zaio.
- c) Eskaerak ondorengo tokietan aurkeztu ahal izango dira:

- a. Erregistro Elektronikoaren bidez

<https://www.euskadi.eus/erregistro-elektroniko-orokorra/web01-sede/eu/>

IDENTIFIKATZEKO BITARTEKOEI BURUZKO INFORMAZIOA

<https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikorako-onartutako-bitartekoak/web01-sede/eu/>

BAK ETA BAKQ ESKATZEKO INFORMAZIOA:

http://www.izenpe.eus/s15-content/eu/contenidos/informacion/bak/eu_def/index.shtml

- b. Urriaren 1eko 39/2015 legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 16.4. artikuluan xedatzen dituen erregistroetako edozein.

SEIGARRENA.- Eskaerak aurkezteko epea.

2020ko uztailaren 3ra, data hau barne, izango da irakastorduak murriztea eskatzeko idazkia aurkezteko epea.

Murrizteko eskaera deialdi honetan ezarritako epean egiten ez dutenek galduko dute 2020/2021ko ikasturterako eskatzeko eskubidea.

ZAZPIGARRENA.- Emateari buruzko ebazpena.

- a) Eskabideak aztertu ondoren, Langileak Kudeatzeko Zuzendariaren behin-behineko ebazpena argitaratuko da.
- b) Behin-behineko ebazpenari alegazioak aurkezteko epea igarota, eta aurkeztutako alegazioak ikusita, hala badagokio, Langileak Kudeatzeko Zuzendariaren behin betiko ebazpena argitaratuko da.



- c) Eskatutako murrizketak onartu edo ukatzeko ebazpena Hezkuntza Sailaren webgunean argitaratuko da, jakinarazpenaren ondorioetarako (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hezkuntza-saila/>).
- d) Murrizketa horri ezin zaio uko egin.

ZORTZIGARRENA.- Datu pertsonalak babestea.

- a) Abenduaren 5eko 3/2018 lege organikoak, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoak, eta otsailaren 25eko 2/2004 legeak, titularitate publikoko datu pertsonalen fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzeari buruzkoak, xedatutakoaren arabera tratatuko ditu lortutako datuak Hezkuntza Sailak.
- b) Beren datu pertsonalak deialdi honetan adierazitako eran eta helburuarekin tratatuak izateari berariazko oniritzia ematen diote eskatzaileek; halaber, Hezkuntza Sailaren web orrian (<http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hezkuntza-saila/>) eta Hezkuntza Saileko Lurralde Ordezkaritzetako iragarki-taulan argitara ematea onartzen dute, bakarrik deialdiari dagozkion tramiteetan.

BEDERATZIGARRENA.- Errekurtsoak.

Urriaren 1eko 39/2015 legeak, Administrazio Publikoetako Administrazio Prozedura Erkidearenak, 121. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, gorako errekurtsoa jarri ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari ebazpen honen aurka, hilabeteko epean, argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteizen 2020ko ekainaren 23a

JON AGIRRE HUERGA
DIRECTOR DE GESTIÓN DE PERSONAL/LANGILEAK KUDEATZEKO
ZUZENDARIA